


BIDELAGUNTZA PROGRAMA

2026





Gipuzkoako Eskola Irekia

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Eskola Irekia abian jarri du **bi helburu** nagusirekin:

1

Eragile ezberdinek gobernantza publikoan hartzen diren erabakietan duten eragin ahalmena handitzea eta politika publikoak hobetzea.


2

Demokraziaren kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko baliabide izatea.

Bidelaguntza

BIDELAGUNTZA Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuak udalei zuzendutako prestakuntza-ekimena da. Aurten, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean osatu eta eskainiko dena.

Elkarteetako kideak, herritarrak, udal ordezkari politikoak eta teknikariak trebatuz, herritarren bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu, partaidetzaren inguruko ezagutza lurralde osoan zabalduz. Ekimen honek bizia eta malgua izan nahi du, tokiko errealitate eta eskaerei egokituz.



Udalen bitartez bideratzen den hirugarren edizio honetan, **Bidelaguntza-programak ondorengo hartzaileei** zabaldu nahi die deialdia:



Udalei

tokian tokiko errealitatera egokituta herritarren partaidetzan edota ekintza komunitarioan gogoeta egin edo sakontzen jarraitzeko.



Udal teknikariei

herriko errealitate sozialera egokituko diren politika publikoak diseinatzeko, eta metodologian laguntzeko, eta metodologian parte hartzaile eta komunitarioetan trebatzeko.



Herrietako elkarteei eta herritar taldeei

haien proiektuak indartu eta kudeaketa errazteko.


Hartzaile horiei zuzenduta **ondorengo jarduerak** eskainiko dira:

Trebakuntza tailerrak

Partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzen jarraitzeko trebakuntza-tailerrak, udal bakoitzera egokitutakoak (udal mailan); 2026ko urtarrila eta urria bitartean.

3 trebakuntza-tailer mota izango dira:

- Herritarren partaidetza udalean.
- Nola erraztu ekintza komunitarioa udaletik.
- Nola indartu partaidetza eta ekintza komunitarioa 2500 biztanletik beherako herrietan?



Esperientzia eta erronkak partekatzeko online TOPALEKUA

Lurraldeko erakunde publiko ezberdinetan lanean ari diren teknikari eta ordezkari politikoek abian dituzten (edo abian jarri nahi dituzten) partaidetza edota ekintza komunitarioko proiektu/prozesuen inguruan esperientzia, zalantza eta erronkak partekatzeko **online topalekua** izango da. Hileko lehen ostiraletan ordubeteko online saiok izango dira.

Ekintza komunitarioaren metodologian sakontzeko ikastaro trinkoa

Lurraldeko teknikari eta gizarte langile edota hezitzaileei zuzendutako **20 orduko ikastaroa** izango da. 2026ko urtarrileko lau ostiraletan: urtarrilaren 9, 16, 23 eta 30ean, 9:00etatik 14:00etara.

Interseksionalitatea Toki Politikan prestakuntza- jardunaldiak


Udal teknikari eta elkarteetako kideei zuzendutako **jardunaldiak** izango dira, nahiz eta interesa duen edonork parte hartzeko aukera izango duen. Jardunaldiak martxoaren 27an eta apirilaren 17an izango dira.

Udalerrietako herritar taldeei eta elkarteetako kideei zuzendutako ikastaroak

Udalen bitartez, herritar taldeei eta elkarteetako kideei **ikastaro teoriko-praktiko ezberdinak** eskainiko zaizkie. 2026ko urtarrila eta urria bitartean.

Esperientzia eta lan-eredu ezberdinak ezagutzeko bisitak

Urtean zehar **esperientzia edota lan-eredu ezberdinak** ezagutzeko bisitak antolatuko dira.



Trebakuntza tailerrak

Trebakuntza-tailer hauek teoria eta praktika uztartuz garatuko dira, hautatutako gaiaren inguruko oinarritzko ezagutza eskuratzeko prestatuta daude, eta saiakera egingo da udaleko errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko.

- ▼ Herritarren partaidetza udalean.
- ▼ Nola erraztu ekintza komunitarioa udaletik.
- ▼ Nola indartu partaidetza eta ekintza komunitarioa 2500 biztanletik beherako herrietan?

Nork eskatu eta nork hartu dezake parte:

- Prestakuntza saio hauen hartzaille nagusiak udal ordezkari politikoak eta udalean edo udalarentzat lan egiten duten pertsonak izango dira.
- Udalak egingo du trebakuntza-tailerrean parte hartuko dutenen aukeraketa.
- Udal bakoitzak tailer mota bakarra eskatzeko aukera izango du.
- Aurreko edizioan parte hartutakoek sakontzen jarraitzeko aukera izango dute.


Kopurua:

Gutxienez 10 pertsonako taldea sortu beharko da.

2500 biztanletik beherako herrien kasuan:

- Gutxienez 8 pertsonako taldea sortzeko aukera egongo da.
- Eskaera udalerrri bat baino gehiagoren artean egiteko aukera egongo da.
- Udaleko jardueratik kanpo dauden udalerrriko herritar edo eragileek parte hartzeko aukera egongo da.

**taldea osatzeko zailtasunak izatekotan, harremanetan jarri Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuarekin*



Tailerren formatua:

- Aurrez aurrekoak.
- 8 ordu artekoak.
- Udalekin adostutako proposamenak (datak, saioen antolaketa...)
- 2026ko urtarrilean hasi eta 2026ko uztaila bitartean garatzeko aukera.

Eskaera-prozesua:


- Udalek eskaera egin ahal izango dute ondorengo lotunean sartuta.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaerak aztertu, eta udal bakoitzari jakinaraziko dio berea onartua edo baztertua izan den.
- Eskaerak baloratzeko orduan, kontuan hartuko dira zenbait irizpide, hala nola, udalen tamaina, udalaren baliabideak eta udalak Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioarekin duen lotura.
- Tailerrak egiteko egutegia eta hurrenkera udal guztiek egiten duten eskaera orokorrak baldintzatuko du.

Izen-ematea:

Trebakuntza-tailerren eskaera egiteko epea **azaroaren 6an zabalduko da eta azaroaren 30ean itxiko da**. Abenduaren bukaeran hautatuak izango diren udalei jakinaraziko zaie, eta hortik aurrera tailerrak aktibatuko dira.

EMAN IZENA





Programan parte hartzeko baldintzak:


Programa honetan parte hartzeak ekar dezake udala eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko eta Sozialeko Zuzendaritzaren arteko elkarlana indartzeko bideak aztertzea. Nolanahi ere, programan parte hartzeko gutxienez honako baldintzak onartu beharko dira:


- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu programaren diseinuaren kostuak, trebatzaileen ordainsariak, programaren komunikazio orokorra eta honen kudeaketa lurralde mailan.
- Udalak bere gain hartuko ditu prestakuntza-jarduerak udalerrian sor ditzakeen kostuak: lokala, argia eta soinua; taldea osatzea, haiekin harremana eta komunikazioa.
- Prestakuntza-jarduerak gauzatu ahal izateko, gutxienez 10 pertsonako taldea sortu beharko da, herri txikien kasuan 8 pertsonakoa. Udalak horien asistentzia bermatzeko ardura izango du.
- Udalak konpromisoa hartzen du haren izenean arituko den pertsona bat izendatzeko, bertan izandako esperientzia beste udalekin partekatu zein sinergiak sortzeko eta programaren ebaluazioan parte hartzeko.

KONTAKTUA

 **Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Gipuzkoako Foru Aldundia**

 **partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**

 **943 112203/943 112289**



Zein da zure udalaren intereseko izan daitekeen tailer-mota?

1. Herritarren partaidetza udalean

Hastapenetik kalitate demokratikoaren inguruko gogoeta-praktikora


Herritarrek udal politiketan parte hartu ahal izateko bideak eskaini nahi dituzue? Udalean eta udaletik egin beharrekoa egituratu nahi duzue? Partaidetza prozesu jakin baten diseinua nahi duzue elkarrekin?

Ondorengo helburuak ditugu:

- Udaleko langile eta ordezkari politikoekin udalerriko herritarren partaidetza sustatzeko eta partaidetza hori udalaren funtzionamenduarekin integratzeko nozioak jasotzea eta udala horretara egokitzeko eman beharreko urratsen inguruan hausnartzea.
- Udalak martxan dituen, edo martxan jarri nahi dituen, partaidetzarako kanal, gune eta bitartekoen inguruan hausnartzea eta horien kalitatean sakontzeko hainbat gako eta gomendio identifikatzea.

Trebakuntzak ondorengoak bilatuko ditu:


- Udalaren behar zehatzera egokituko den eduki teoriko-praktikoa diseinatzea.
- Herritarren partaidetzaren inguruko ulermen desberdinak partekatu, eta ikuspegi bateratu bat sortzea irakurketa autokritikotik abiatuta.



- Herritarren partaidetzaren arloan udalak abian dituen edo abian jarri nahi duen ekimenen baten inguruan gogoeta aplikatua bideratzea: izan diseinuan nahiz hori ahalbidetzeko barne antolaketan.

Udalak Aldundiarekin adostuta, besteak beste, ondorengo gaietakoren bat lantzeko aukera izango du:

- Nola hasi partaidetza egituratzen udal barruan
- Zein da udal ordezkari eta teknikarien lana herritarren partaidetzari dagokionean
- Nola diseinatu kalitatezko partaidetza prozesu bat (besteak beste, aurrekontu parte hartzaileak, ausaz aukeratutako herritarren prozesu bat...)
- Nola hobetu dagoeneko ditugun espazio eta gune parte hartzaileak
- Udalak eta GFAk adostuta udaletik herritarren partaidetza sustatzeko baliagarria izan daitekeen edozein gai.



2. Nola erraztu ekintza komunitarioa udaletik

Ekintza komunitarioa sustatzeko estrategiatan sakontzetik zerbitzu eta ekipamenduetan ikuspegia txertatzera


Zein da udalaren rola ekintza komunitarioan? Zertan eta nola eragin dezake? Udaleko zerbitzu edo ekipamenduetatik –liburutegi, kultur etxe, kiroldegi, gazteleku...– bizitza komunitarioari ekarpena egiten diogu? Herritarren inplikazioa eta protagonismoa errazten dugu? Ikuspegi inklusibo batetik lan egiten dugu?

Ondorengo helburuak ditugu:

- Udaleko kideen artean hausnarketa partekatua sortzea, tokikotasunetik ekintza komunitarioko estrategiak garatzeko, eta administrazio publikoak zeregin horretan dituen rolen inguruan gogoeta eginez.
- Udaleko zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatzeko ariketa praktikoa egitea, lan egiteko moduetan eragiteko.


Trebakuntzak ondorengoak bilatuko ditu:

- Udalaren behar zehatzera egokituko den edukia teoriko-praktikoa diseinatzea.
- Udaletan ikuspegi komunitarioarekin aritzeak eraldaketa sustatzeko daukan balioaz jabetzea.
- Udal jardunak ekintza komunitarioan duen eragina aztertzea autokritikatik abiatuta.
- Udaleko praktikatik abiatuta, udalean Ikuspegi komunitarioa txertatu edo garatzeko eman beharreko urratsak irudikatzea eta horretarako, eman behar diren barne- eta kanpo-baldintzak identifikatzea.



Udalak Aldundiarekin adostuta, besteak beste, ondorengo gaietakoren bat lantzeko aukera izango du:

- Udalak eta udal-zerbitzuek ekintza komunitarioaren inguruan dituzten aurrezagutza eta praktikak ezagutzea.
- Ekintza komunitarioa errazteko estrategiak ezagutu eta estrategia jakin batean sakontzea, proiektu eta eragin eremu jakinak identifikatuz.
- Udalak eta GFAk adostuta udaletik ekintza komunitarioa sustatzeko baliagarria izan daitekeen edozein gai.



3. Partaidetza eta ekintza komunitarioa herri txikietan


2500 biztanletik beherako herria(k) zarete eta herritarren partaidetza eta ekimena areagotu edo gaiaren inguruan gogoeta egin nahi duzue? Zuen neurria sortutako erantzunak nahi dituzue? Hau da zuen tailerra:

Ondorengo helburuak ditugu:

Herri txikien dinamikara egokitutako erantzunak sortzea herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa ardatz izanik.

Zehazki hau bilatuko dugu:

- Udalaren behar zehatzera egokituko den edukia teoriko-praktikoa diseinatzea.
- Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioaz ari garenean zertaz ari garen argitzea: tokian toki izandako ibilbide eta eskarmentuari arreta jarriaz.
- Herri txikien errealitatean, herritarren partaidetza edota ekintza komunitarioa garatzeko elementuen inguruan fokua jartzea eta lanketa egitea: zer zaindu, zer landu, zer baldintza, etab.
- Tokian toki herritarren partaidetzan eta ekintza komunitarioan aurrera egiteko ariketa egitea.



Esperientziak eta erronkak partekatzeko online TOPALEKUA

Lurraldean herritarren partaidetzan eta ekintza komunitarioan lanean ari direnen topalekua izan nahi du. Lurraldeko esperientziak partekatu eta horien inguruan izan daitezkeen zalantza, galdera edota erronkak modu informal batean partekatzeko; batak besteaz ikasteko topaleku izan nahi du.

Hilabetero ordubeteko online saioa izango da. Saio bakoitzean lurraldeko esperientzia edo proiektu jakin baten inguruan jardungo da, bertan parte hartzen duten kideek duten jakin-min, interes edo premiaren arabera.

Nork parte hartu dezake:


Saio hauetan lurraldeko erakundeetan gai hauetan lanean ari den orok parte hartu ahal izango du, nahiz teknikari nahiz ordezkari politiko. Era berean, landutako gaiaren arabera eragile ezberdinei zabaltzeko aukera egongo da.

Galdetegia:

Saio hauetan parte hartzeko interesa duen orori [galdetegi_hau](#) betetzea eskatuko zaio. Galdetegiaren helburua taldean partekatu nahi dituen esperientziak, erronkak edota jakin-minak identifikatzea izango da, partekatuko den Espazio-denboraren erabilgarritasuna bermatu nahi baita.

BETE
GALDETEGIA





Izen-ematea:


Eskaera egiteko epea azaroaren 6an zabalduko da eta urte osoan zehar zabalik izango da.

Programan parte hartzeko baldintzak:


Topalekua ekimenean parte hartzeko konpromisoak honakoak dira:


- Hilabeteko dinamikan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, salbuespenak salbuespen.
- Elkar-entzuketarako eta partekatzeko espazio bat izatea helburu duenez, bertan parte hartzen duen pertsonak bertan esandakoen konfidentzialtasuna bermatzeko konpromisoa hartzen du.

KONTAKTUA

 **Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua -
Gipuzkoako Foru Aldundia**

 **partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**

 **943 112203/943 112289**



Ekintza Komunitarioaren metodologian sakontzeko ikastaro trinkoa

“Ekintza komunitarioa: Gipuzkoko foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa” garatzen jarraitzeko trebakuntza da.


Markoak lantzen duen ikuspegian eta estrategia metodologikoan sakontzea da trebakuntza-ikastaroaren ardatza.

Ondorengo helburuak ditugu:

- Ekintza komunitarioko politika publikoari buruz GFaren esparru kontzeptual eta estrategikoan jasotzen diren zentzua eta ikuspegia aurkeztea.
- Markoan aipatzen diren printzipio metodologikoetan sakontzea, ikuspegi aplikatutik.
- Prozesu/proiektu komunitario baten faseak eta uneak laguntzeko baliabideak/tresnak ezagutaraztea, ebaluazio-fasea barne.

Nork eskatu eta nork parte hartu dezake:

- Lurraldeko edo toki mailako teknikari, gizarte langile edo hezitzaileei zuzendutako ikastaroa da.
- Herri txikien kasuan, ordezkari politikoek edota herriko eragileek ere parte har dezakete.



Egitura:

- Ernesto Morales eta Oscar Rebollo (IGOP-UAB)
- 20 ordu (5 orduko 4 egun): ostiraletan, 2026ko urtarrilak 9, 16, 23, 30
- Orduategia: 9:00-14:00
- Saioetan tailer dinamikak, hizlariak egindako aurkezpenak eta eztabaida irekiak uztartuko dira.

Saioen araberako eduki-eskema

1. SAIOA

Ekintza Komunitarioaren zentzua

Oscar Rebollo

- Zer ulertu Ekintza Komunitario izenaz. GFaren kontzeptu-markoa
- Ikuspegi komunitarioa eta esku hartzeko eremuak
- Lan komunitarioko prozesu baten faseak eta uneak: Zein galdera dira giltzarri une bakoitzean?

2. SAIOA

Printzipio metodologikoak: teoriatik praktikara

Ernesto Morales eta Oscar Rebollo

- Presentzia izatea
- Hartutakoak
- Ekintza erdigunean jartzea
- Bila irten
- Barrukoekin lan egitea
- Jendearekin bere indarguneetatik lan egitea
- Integratzea,
- Lidergo erraztatzaileak.

3. SAIOA

Erreminta kutxa

Ernesto Morales eta Oscar Rebollo


- Hasierako diagnostikoa egiteko
- Komunitateko aktoreak eta aktiboak mapeatzeko
- Prozesua antolatzeko
- Autoanalisisikoak
- Aldaketa ebaluatzeko

4. SAIOA

Kasuak eta adibideak

Oscar Rebollo

- Elkarte-protagonismoa duen prozesu komunitarioa
- Gizarte-azpiegitura komunitarioak
- Zerbitzuetatik batera lan egitea
- Oinarri sektorialeko proiektu komunitarioak
- Lurralde-oinarriko proiektu komunitarioak



Eskaera-prozesua:

- Udalek eskaera egin ahal izango dute ondorengo lotunean sartu eta udalen ekintzatan klik eginda.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaerak aztertu, eta eskatzaileari jakinaraziko dio berea onartu edo baztertu egin ote den.
- Eskaerak baloratzeko orduan, kontuan hartuko dira zenbait irizpide, hala nola, udalen tamaina, udalaren baliabideak eta udalak Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioarekin duen lotura.

Izen-ematea:

Trebakuntza-tailerren eskaera egiteko epea **azaroaren 6an zabalduko da eta azaroaren 30ean itxiko da**. Abenduaren erdialdean jakinaraziko zaio eskatzaileari onartua edo baztertua izan ote den.

IZENA EMAN



Programan parte hartzeko baldintzak:


- Lehenik eta behin, udal bakoitzeko kide batek parte hartzeko aukera izatea lehenetsiko da. Aldiz, erakunde bereko kide batek baino gehiagok egin ahal izango du eskaera, aukera hau izen-emate kopuruaren arabera ebatziko da.
- Eskatzaileak konpromisoa hartzen du 20 orduetan parte hartzeko.
- Eskatzaileak konpromisoa hartzen du ikastaroaren ondoren Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioan ekintza komunitarioaren inguruan antolatuko den gogoeta saioan parte hartzeko.

KONTAKTUA

 **Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Gipuzkoako Foru Aldundia**

 **partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**

 **943 112203/943 112289**



Interseksionalitatea Toki Politikatan prestakuntza-jardunaldiak




Administrazio publikoek interseksionalitateari heltzeak zeharkako logikak aplikatzeko ahalegina eskatzen du, are gehiago herritarrak oro har edo desberdintasun-ardatz bera duten kolektibo espezifikoak orientatzeak dakarren zalantzatik. Gure abiapuntua da ez dagoela "herritar prototipikorik", eta konponbide lodiek ez dutela berdin balio jende guztiarentzat.

Normalean, konponbide orokorrek desberdintasunak, aurreiritziak eta bazterketak eragiten dituzte, eta desberdintasun horietan sakontzen dute. Askotan, kolektibo bakar bati zuzendutako politikak muga ugari dituzte, ez baitute ahalbidetzen modu konplexuan elkarreragiten duten desberdintasun-ardatzak gurutzatzea.

Hori horrela, hurbilketa interseksionalak erraztu egiten du zapalkuntza-eta desberdintasun-ardatzek elkarri lotuta zeharkatzen dituzten errealitate konplexu horietara hurbiltzea.

Helburua da: ezagutzera ematea baliagarria dela ikuspegi interseksionala aplikatzea gure lan-arloetan, bai administrazio publikoetan, bai gure erakunde eta elkarteetan.



Zehazki, honako hauek bilatuko ditugu:

- Gure eguneroko lanean interseksionalitatea zer den, hobeto ezagutzea.
- Errealitatea zatikatzen duten eta konponbide partzialak ematen dituzten politika, plan, programa, proiektu eta ekintzen mugak adieraztea, desberdintasunak kontuan hartu gabe.
- "Pertsoneri" arreta emateko tresnak ematea, eta ez "herritarrei, oro har".
- Gure praktikatik esku-hartzearen foku sektoriala (monofokala, diskriminazio anizkoitza edo interseksionalitatea) jartzen den lekuaren arabera joerak, bazterketak eta desberdintasunak nola sortzen diren detektatzen ikastea.
- Dibertsitateen interseksionalitatea bereiztea.


Datak:

2026ko martxoaren 27a eta apirilaren 17a.


Nork eskatu eta nork parte hartu dezake:

- Bereziki, udal teknikariei eta elkarteei zuzendutako ikastaroa izango da, nahiz eta, gaian interesa izan dezakeen edonork parte hartzeko aukera izango duen.

Izen-ematea:


Ondorengo lotunean sartuta. [IZENA EMAN](#) 

KONTAKTUA

 **Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia | Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Gipuzkoako Foru Aldundia**

 **aniztasuna@gipuzkoa.eus | partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**

 **943 112203/943 112289**



Udalerrietako herritar taldeei eta elkarteetako kideei zuzendutako ikastaroak

Partaidetza eta ekintza komunitarioan sakondu eta elkartegintza indartzeko lagungarri izan daitezkeen gaien inguruko prestakuntzarako **5 ikastaro eskainiko dira.**

- ▀ 1. Proiektu komunitarioak garatzeko gakoak
- ▀ 2. Talde osasuntsuak
- ▀ 3. Talde eraginkorrak
- ▀ 4. Zeintzuk dira elkarten betebeharrak legal eta fiskalak
- ▀ 5. Taldeen lana errazteko konponbide digitalak

Nork eskatu eta nork parte hartu dezake:


Ikastaroak udalak eskatu behar beharko ditu.

Hartzaileak ondorengoak izan beharko dute:

- Herrietako elkarteak
- Herritar taldeak
- Elkarte sareak (eskualdeko elkarteak lankidetzan).

Formatua eta pertsona kopurua:

Ikastaro guztiak doakoak izango dira eta aurrez-aurreko formatuan eskainiko dira. Prestakuntza ekimen bakoitzerako izen-ematea dagokion udalak jarriko du abian.



Gutxienez 10 pertsonako taldea sortu beharko da.

2500 biztanletik beherako herrien kasuan:

- Gutxienez 6 pertsonako taldea sortzeko aukera egongo da.
- Eskaera udalerrri bat baino gehiagoren artean egiteko aukera egongo da.

**taldea osatzeko zailtasunak izatekotan, harremanetan jarri Gobernu Oheko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuarekin*


Garapena:

2026. urtean urtarriletik urria bitartean garatuko dira ikastaroak.

Ikastaroen formatua:


Ikastaro teoriko-praktikoak izango dira.

Ordu iraupen ezberdina izango dute, 2 eta 4 ordu bitartekoak.



Eskaera prozesua:


Urratsak:

- Udalak eskaera egin beharko du, bere herriko elkarte eta herritarrei ikastaroak zabaltzeko interesa badu, 2025. urteko azaroaren 6tik azaroaren 30 bitartean.
- Ondorengo lotunean egin beharko da. **IZENA EMAN** 
- Udalak elkartearen interesa aztertu ondoren, zehaztuko du zein den edo zeintzuk diren bere udalerrian eskaini nahi dituen ikastaroak.
- Udalak arduradun bat izendatu beharko du GFArekin koordinatzeko.
- GFAk udalen eskaerak jasotakotan, baliabideak antolatu eta udalei komunikaziorako euskarriak eskainiko dizkio bere herrian deialdia zabal dezan.
- Udalak taldea sortzeko ardura izango du, eta koordinatzailearen bitartez GFArekin hartu eman zuzena izango du ikastaroen egutegia lotu eta programaren jarraipena zein ebaluazioa egiteko.

Banaketa egin ondoren, aurrekontua egongo balitz, eskaera berriak jasotzeko epe berria zabalduko da; unean uneko baliabide ekonomikoen eta trebatzaileen agendaren arabera antolatuko dira.

Tokia eta izen-ematea:

Prestakuntza ekimen bakoitzerako izen-ematea dagokion udalak jarriko du abian. Prestakuntza ekimena burutzeko, gutxienerako taldea sortu beharko dute. Udalak proposatu eta eskaintzen dituen lekuetan egingo dira Prestakuntza ekintzak.



Prezioa:

Doakoak izango dira.

Parte hartzeko baldintzak:

Udalek prestakuntza-ekimenean parte hartzeko gutxienez honako baldintza hauek onartu beharko dituzte:


- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu Prestakuntza ekimenaren gastuak: trebatzailearen ordainsariak, komunikaziorako euskarriak udalen eskura jartzea eta honen kudeaketa lurralde mailan.
- Udalak GFArekin koordinatzeko arduradun bat izendatuko du. Horrek programa udalerrian garatzeko lanak beregain hartuko ditu, eta programaren jarraipen eta ebaluazioan parte hartu beharko du
- Udalak bere gain hartuko ditu prestakuntza ekimenak udalerrian sor ditzakeen gastuak: lokalaren gastuak, argia eta soinua, antolaketako langileak, herri mailako komunikazioa, izen-emate prozesua, saioaren jarraipena eta horri buruzko informazioa eta balorazioa.
- Prestakuntza ekimenak gauzatu ahal izateko gutxienez 8 pertsonak eman beharko dute izena aurrez.
- Udalak Prestakuntza ekimenaren berri emango du bere udalerrian komunikaziorako bide desberdinak erabiliz: sare sozialak, e-postak, kartelak...

KONTAKTUA

 **Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Gipuzkoako Foru Aldundia**

 **partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**

 **943 112203/943 112289**



1. PROIEKTU KOMUNITARIOAK GARATZEKO GAKOAK

Iraupena: 2 orduko 2 saio

Deskribapena: Instituzio eta elkarteentzat komunitatea sendotzea eta bertan parte hartzea sustatzea gaur egungo erronketako bat bilakatu da. Izan ere, elkarte bakoitzak bere indarguneak eta ahulguneak ditu komunitatean eta gobernantzan parte hartzeko orduan. Era berean, partaidetza era askotan ulertu eta bizi daiteke.

Ikastaro honetan, ikasketa-irakasketa prozesuak izango dira abiapuntu, saioan bertan metodologia partehartzailea sustatuz, eta beti ere tokian tokiko errealitatera egokituz. Metodologia honen bitartez, elkarte bakoitzaren indarguneak balioan jarriko dira. Eta baita ahulguneak identifikatu ere, denen artean hauek indartu ahal izateko elkarrengandik ikasiz.


Helburuak:

- Elkarteek proiektu komunitarioak garatzeko gakoak eskaintzea, gizarte kohesioa aintzat hartuta.
- Herri eragileen gaitasunak hobetzea, gobernantza ereduan daukaten ahalmena handitzeko.
- Ekintza komunitarioen estrategietan sakontzea.
- Partaidetza mota ezberdinak ezagutzea.

Programa:

- Elkarte bakoitzaren indargune eta ahulguneak identifikatu.
- Parte-hartzea zailtzen dituen nodoak identifikatuko dira.
- Parte hartzen ez duten ahotsak erakartzeko estrategiak bilatuko dira gizarte-kohesioa eta herritar guztion partehartzea bultzatuz.
- Tokian tokiko errealitatera egokitutako prestakuntza izango da.

Trebatzailea: EMAUS



2. TALDE ERAGINKORRAK

Iraupena: 2 orduko 2 saio

Deskribapena: antolaketaren eraginkortasunari eta gure egunerokotasunean aplikatzeko tresna erabilgarriari buruzko saio praktikoa. Proiektuen plangintzarako eta jarraipenerako hainbat eredu eta tresna hartuko ditugu kontuan, eta jardunbide egokiak partekatuko ditugu antolakuntzaren eraginkortasun-prozesuan funtsezkoak diren 2 alderdiri buruz: bilera eraginkorrak eta denboraren kudeaketa. Hori guztia ikaskuntza parte-hartzailearen ikuspegitik, non parte hartzen duten elkarteen kasu errealetan oinarrituko garen proposamen berriak eta konponbide aplikagarriak errazteko.


Helburuak:

- Erakundearen eraginkortasun-eredua ezagutzea.
- Proiektuak planifikatzeko eta horien jarraipena egiteko ereduak eta tresnak ezagutzea.
- Bilera eraginkorrak egiteko gakoak eta jardunbide egokiak partekatzea.
- Denbora kudeatzeko gakoak eta jardunbide egokiak partekatzea.

Programa:

- Plangintza eta jarraipena.
- Bilera eraginkorrak.
- Denboraren eta baliabideen kudeaketa.
- Proiektuak kudeatzeko tresnak.

Trebatzailea: Impact Hub



3. TALDE OSASUNTSUAK

Iraupena: 2 orduko 2 saio

Deskribapena:

Pertsonen ongizatean oinarritutako antolakuntza-eredu osasungarriak ezagutzeko eta bilakatzeko interesa duten elkarteentzako tailerra. Eraginkortasun-eredutik lan egingo dugu, talde edo taldeen kultura eta premia pertsonal eta erlazionalei erantzuteko. Taldeak kohesionatzeko hainbat kasu erreal eta praktikarekin arakutzen dugu, eta gatazkei aurre egitearen eta kudeatzearen garrantziari erreparatuko diogu, kontzientzia jarritz eta komunikazio asertiboko eta kudeaketa emozionaleko hainbat tresna aplikatuz.


Helburuak:

- Erakundearen eraginkortasunean pertsonen kohesioak eta ongizateak duen garrantziaz jabetzea.
- Gatazkei erantzutea eta horiek kudeatzeko jardunbide egokiak garatzea.
- Komunikazio asertiboko eta kudeaketa emozionaleko praktikak eta tresnak ezagutzea eta garatzea.

Programa:

- Taldeen kohesioa.
- Gatazka kudeatzea.
- Emozioak kudeatzeko tresnak.

Trebatzailea: Impact Hub



4. ADMINISTRAZIO ETA KONTABILITATE OINARRIAK

Iraupena: 2 orduko 2 saio

Deskribapena: saio teoriko-praktiko bat, irabazi-asmorik gabeko erakundeen lege- eta kontabilitate-esparrua ulertu eta integratzeko eta elkarre bat sortzeko eta bertan parte hartzeko kontuan hartu beharreko gauzak ateratzeko. Saioa parte-hartzailea izango da, eta parte-hartzaileek beren kasuak partekatu eta eguneroko kudeaketa erraztuko duten trikimailuak, tresnak eta programak eraman ahal izango dituzte.


Helburuak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde baten lege-esparrua ulertzea eta integratzea.
- Gure erakundeetan administrazio- eta kontabilitate-jardunbide egokiak ezagutzea eta aplikatzea.
- Parte hartzen duten erakundeen esperientziak eta ikaskuntzak partekatzea.
- Gure antolaketa-kudeaketa erraztuko duten tresnak eta programa praktikoak identifikatzea eta aplikatzea.

Programa:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak. Kontuan hartu beharrekoak.
- Kontabilitatearen kudeaketa
- Tresna eta programa praktikoak.

Trebatzailea: Impact Hub



5. TALDEEN LANA ERRAZTEKO KONPONBIDE DIGITALAK

Iraupena: 2 orduko 2 saio

Deskribapena: praktikan, esperimentazioan eta lanean oinarritutako prestakuntza planteatzen da, erakunde hartzaileen testuingurura egokitutako adibideekin.


Helburua:

Elkarte eta taldeei beren beharretara egokitutako irtenbide digitalak ezagutaraztea, parte-hartzea sustatzeko, beren egunerokotasunaren funtsezko alderdiak hobetzeko tailer praktiko batzuen bidez, hala nola:

- Komunikazioa
- Barne-antolaketa
- Baliabideen eta proiektuen kudeaketa
- Kanpoko ikuspena

Espero diren emaitzak:

- Hautatutako soluzio digital batzuen oinarriko funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, berehalako erabilgarritasunagatik eta aplikagarritasunagatik.
- Gutxienez tresna horietako bat edo bi (edo ikasitako erabilera berriak) eguneroko jardunean edo erakundearen kudeaketan integratu ahal izatea.
- Ikasitakoa praktikan jartzeko konpromisoa hartzea, erakundearen barne-prozesuetan edo kanpo-komunikazioan benetako hobekuntzak sortuz.



Parte-hartzaile bakoitzak honako hauek ekarri beharko ditu:

- Mugikor bat, Interneterako sarbidearekin (aplikazioak deskargatu ahal izateko espazioarekin)
- Ordenagailu eramangarria,
- Googleko kontu bat eduki beharko da, eta
- BakQ edukitzea gomendatzen da.

Programa:


Komunikazio eta koordinazio eraginkorra

Dokumentuen kudeaketa

Gidak sortzea

Difusioa eta elkarrearen ikusgarritasuna.

Trebatzailea: Aptes



Esperientzia eta lan-eredu ezberdinak ezagutzeko bisitak

Urtean zehar esperientzia edota lan-eredu ezberdinak ezagutzeko bisitak antolatuko dira. Hala nola, ondorengoak ezagutzeko ahalegina egingo da: ekipamendu eta zerbitzu komunitarioak, esperientzia konkretuak, udal jakinek herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa sustatzeko martxan jarritako politika publikoak...

Horien berri izan nahi baduzu, harpidetu Erakunde Arteko Espazioaren [Buletinean](#) eta zure e-postan jasoko duzu bisiten berri.

HARPIDETU 

